



**JARRAIBIDEAK, Hezkuntza sailburuordearenak, Musikako eta Dantzako ikasketa profesionalak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa aldi berean egiteko aukera ematen duten neurriei eta Gorputz Hezkuntza Ikasgaiaren gainean got-mailako edo errendimendu handiko kirolaria izateak eta Dantzako ikasketa profesionalak izan behar dituzten eraginei buruzkoa,**

2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, Hezkuntzari buruzkoak, bare 47.1 artikuluan xedatzen du hezkuntza-administrazioek aukera emango dutela aldi berean egiteko Arte-ikasketa profesionalak eta Bigarren Hezkuntza.

236/2015 Dekretuak, abenduaren 22koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortzeari eta ezartzeari buruzkoak (EHAA urtarrilaren 15koa), bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian xedatzen du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak neurri egokiak hartu behar dituela bateragarri egiteko Musikako eta dantzako arte-ikasketa profesionalak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak.

242/2009 Errege Dekretuak, otsailaren 27koak, ezarri ditu Musikako eta dantzako ikasketa profesionalen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren arteko baliozkotzeak, bai eta Gorputz Hezkuntzaren ikasgaiaren gainean goi mailako edo errendimendu handiko kirolaria izateak eta Dantzako ikasketa profesionalak izan behar dituzten eraginak ere.

Ikastetxeek ebatzi behar dituzte ikasleek egindako eskaerak, Bigarren Hezkuntzako ikasketak eta Musikako eta dantzako ikasketa profesionalak aldi berean egiteko aukera ematen duten baliozkotzeak edo salbuespenak egiteko. Horri erantzuteko, eta dagokion agindua argitaratu rte, Hezkuntza sailburuorde honek honako jarraibide hauek eman ditu:

**Lehena.-** Jarraibide hauetan baliozkotzeak xedatu dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasgai jakin batzuen eta Musikako eta dantzako ikasketa profesionaletako zenbait ikasgaiaren artean. Orobat, salbuespenak ezarri dira, goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariek eta Dantzako ikasketa profesionalak egiten dituzten ikasleek egin gabe uzteko aukera izan dezaten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Gorputz Hezkuntza ikasgaia, indarrean den oinarrizko araudiaren arabera.

**Bigarrena.-** Baliozkotze edo, kasuan kasu, salbuespen horiek egingo zaizkie Hezkuntza Sailak baimendutako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ikasleei. Horretarako, baina, ikasleek bi baldintza hauetako bat bete beharko dute, gutxienez:

- a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa egiten aritzea edo egin izana, ikasketak osorik edo zati bat; eta Musika edo dantzako ikasketa profesionalak egiten aritzea edo egin izana.
- b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa egiten aritzea, eta goi-mailako edo errendimendu handiko kirolaria dela edo Dantzako irakaskuntza profesionaletako ikaslea dela egiaztatzea.

**Hirugarrena.-** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak baliozkotzea Musikako eta dantzako ikasketa profesionaletako ikasgaien bidez.

Musikako ikasketa profesionaletako Instrumentu nagusia edo ahotsa I ikasgaia egiten ari diren



edo gainditu duten ikasleek baliozkotu dezakete derrigorrezko ikasgaia den Musika, DBHko lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetan.

Musikako ikasketa profesionaletako Instrumentu nagusia edo ahotsa II ikasgaia egiten ari diren edo gainditu duten ikasleek baliozkotu dezakete Musika ikasgaia DBHko laugarren mailan.

Dantzako ikasketa profesionaletako Musikako lehenengo maila egiten ari diren edo gainditu duten ikasleek baliozkotu dezakete derrigorrezko ikasgaia den Musika, DBHko lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetan.

Dantzako ikasketa profesionaletako Musikako bigarren maila egiten ari diren edo gainditu duten ikasleek baliozkotu dezakete Musika ikasgaia, DBHko laugarren mailan.

**Laugarrena.-** Baliozkotzea, Batxilergoko zenbait ikasgairen eta Musikako eta dantzako ikasketa profesionaletako ikasgaien artean.

Ikasleek baliozkotu ditzakete Batxilergoko ikasgaiak I. eranskinean jaso diren Musikako ikasketa profesionaletako ikasgaien bidez.

Ikasleek baliozkotu ditzakete Musikako ikasketa profesionaletako ikasgaiak, II. eranskinean jaso diren Batxilergoko ikasgaien bidez.

Ikasleek baliozkotu ditzakete Batxilergoko ikasgaiak III. eranskinean jaso diren Dantzako ikasketa profesionaletako ikasgaien bidez.

Ikasleek baliozkotu ditzakete Dantzako ikasketa profesionaletako ikasgaiak, IV. eranskinean jaso diren Batxilergoko ikasgaien bidez.

Ikasleek eskatzen dituzten ikasgaien baliozkotzeak egin ahal izateko, ikastetxeetako zuzendaritzek behar diren aldaketak egingo dituzte matrikulatzeko aplikazioan VIII. Eranskinean adierazten den bezela.

Baliozkotutako ikasgaiak ez dira kontuan izango batez besteko nota jartzeko.

**Bostgarrena.-** Salbuespena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Gorputz Hezkuntza Ikasgala egin behar ez izateko

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Gorputz Hezkuntza ikasgaia egin beharrik ez izateko salbuespena eska dezakete ikasketa horiek egiten ari diren eta, aldi berean, goi-mailako edo errendimendu handiko kirolari direla edo Dantzako ikasketa profesionalak egiten dituztela ziurtatzen duten ikasleek.

Gorputz Hezkuntza egin beharrik izango ez duten ikasleak ez dira ebaluatuko ikasgai horretan

**Seigarrena.-** Curriculum-egokitzapena

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek, aldi berean Musikako ikasketa profesionalak egiten dutenek, eska dezakete Gorputz Hezkuntza ikasgaiko curriculum-egokitu dakielako.

Curriculum-egokitzean, zehazki, hezkuntza-helburuak egokituko dira, eduki jakin batzuk kendu edo sartuko dira eta, ondorioz, ebaluazio-irizpideak ere aldatuko dira. Curriculum-egokitzapen horren helburua izango da ikasketa profesionaletan errendimendu hobea izatea eta musika ikasgaietara lotutako alderdi anatomikoen lantzea mantzentzea edo orekatzea.



Moldaketa egiteko eskera egingo duen ikaslea eskolatuta dagoen Bigarren Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako Departamentuak egokituko du curriculuma. Egokitzapena egiteko, nahitaez egin beharko du aldez aurreko txostena ikaslea ikasketak egiten ari den Musikako ikasketa profesionalen zentroak.

**Zazpigarrena.-** Baliozkotzeak, salbuespenak eta curriculum-egokitzapenak eskatzeko prozedura.

Bigarren puntuan jasotako kasuan dagoen ikasle interesdunak edo, adin txikikoa bada, haren legezko ordezkariak, eskaera egingo diote baliozkotzeko, salbuespenen bat egiteko edo curriculuma egokitzeko Hezkuntza Sailak baimendutako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko zuzendariari edo Musika edo Dantzako ikasketa profesionaletako zentroari, kasuan kasuko ikasketetako ikasgaien arabera. Eskaera egin beharko dute dagokion ikasturteko urriaren lehenengo hamabostaldian. Baliozkotzeko eskaera egingo da araudi honetako V. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Gorputz Hezkuntza ikasgaia ez egiteko salbuespenaren edo ikasgai horretako curriculuma egokitzeko eskaera VI. eranskineko ereduaren arabera egingo da.

Baliozkotzeko edo curriculuma egokitzeko eskaerarekin batera aurkeztu beharko da Musikako edo Dantza ikasketa profesionaletan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko ikasgaietan (ikasle bakoitzaren egoeraren arabera) matrikulatuta daudela edo ikasgaiak gainditu dituztela ziurtatzen duen agiria. Agiri hori dagokion zentroak emango du.

Ikasgai bat egitetik salbuetsita daudela justifikatzeko, eskaerarekin batera aurkeztu beharko dute Dantzako ikasketa profesionalen zentroan ikasgai matrikulatuta daudela edo ikasgai gainditu dute!a ziurtatzen duen dokumentua edo goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariak dire!a frogatzen duen agiria.

Baliozkotzeko, salbuesteko eta curriculuma egokitzeko ebazpena emango du eskaera egin den eta Hezkuntza Sailak baimenduta izango den ikastetxeko zuzendariak. Ebazpena emango da dagokion ikasturteko urriaren bigarren hamabostaldian, araudi honetako VII. eranskinean jasotako ereduaren arabera eta Ikasketa Antolamendu Zerbitzura horren kopia bidaliko da azaroak 15erako.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak luza ditzake araudi honetan adierazitako epeak eta egin ditzake idazki honetan xedatu ez diren baliozkotzeak, salbuespenezko arrazoiak direla eta, arrazoi horiek behar bezala justifikatuta baldin badaude.

**Zortzigarrena.-** Baliozkotze, salbuespen eta curriculum-egokitzapenen ondorioak.

Baliozkotzeak edo curriculum-egokitzapenak egin daitezkeela adierazten duen ebazpena behin-behinekoa izango da, baldin soilik matrikulazio-ziurtagiria aurkezten bada. Ebazpen hori behin betiko egingo da berez, ikasleak kasuan kasuko ikasgaia gainditu duela adierazten duen agiria aurkezten duenean, betiere azken ebaluazioaren eguna baino lehen. Baldin ikasleak ikasgai hdi gainditu ez badu, ikasgaia egiteke dela adieraziko da.

Salbuespenak edo curriculum-egokitzapenak egingo direla adierazten duen ebazpena behin-behinekoa izango da. Behin betiko egin dadin, aurkeztu beharko da ikasleak matrikula ohiko ebaluazioaren eguneraino mantendu duela edo goi-mailako edo errendimendu handiko kirolaria izan dela adierazten duen ziurtagiria.

Ikasketa bakoitzari dagozkion ebaluazio-dokumentuetan, «Baliozkotua» terminoa eta horren

baliokide den «BAL» kodea erabiliko dira, baliozkotu diren ikasgaien nota jartzeko laukian.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazio-dokumentuetan ikasgaia ez egiteko salbuespena onartzen denean «Salbuesita» terminoa eta «SAL» kodea erabiliko dira Gorputz Hezkuntzari dagokion laukian, eta «CE» kodea jarriko da curriculum egokitu denean Musikako ikasketa profesionalak egiten ari den ikaslearentzat.

Ikasgai bakoitzarekin araudi honetan ezarritako ikasgai bakarria baliozkotu daiteke.

Gasteizen, 2018.ko urriaren 10ean

LA VICECONSEJERA DE EDUCACIÓN



Maite Alonso Arana  
Hezkuntza sailburuordea



### I. ERANSKINA

Batxilergoko zenbait ikasgai baliozkotzea, Musikako ikasketa profesionaletako ikasgaien bidez

Baliozkotuko den Batxilergoko ikasgaia	Ikasgai honen bidez baliozkotuko da:
Musika-azterketa I	Harmoniako 2. maila
Musika-azterketa II	Analisia ikasgaiko 1. maila, Konposizioaren oinarriak ikasgaiko 1. maila edo Konposizio eta konponketak 1. maila
Musikaren eta dantzaren historia	Musikaren historiako 1. eta 2. mailak
Musika-hizkuntza eta -praktika	Instrumentu nagusia edo ahotsa ikasgaiko 3. maila

### II. ERANSKINA

Musikako ikasketa profesionaletako zenbait ikasgai baliozkotzea, Batxilergoko ikasgaien bidez

Baliozkotuko den Musikako ikasketa profesionaletako ikasgaia	Batxilergoko ikasgai honen bidez baliozkotu da:
Analisia ikasgaiko 1. maila edo Konposizioaren oinarriak ikasgaiko 1. maila	Musika-azterketa II
Musikaren historiako 1. eta 2. mailak	Musikaren eta dantzaren historia
Musika-hizkuntzako 1. maila	Musika-hizkuntza eta -praktika

### III. ERANSKINA

Batxilergoko zenbait ikasgai baliozkotzea, Dantzako ikasketa profesionaletako ikasgaien bidez

Baliozkotuko den Batxilergoko ikasgaia	Ikasgai honen bidez baliozkotuko da:
Anatomia aplikatua	Dantzari aplikaturiko anatomiako 1. eta 2. mailak
Musikaren eta dantzaren historia	Dantzaren historiako 1. eta 2. mailak
Musika-hizkuntza eta -praktika	Musikako 3. maila

### IV. ERANSKINA

Dantzako ikasketa profesionaletako zenbait ikasgai baliozkotzea, Batxilergoko ikasgaien bidez

Baliozkotuko den Dantzako ikasketa profesionaletako ikasgaia	Batxilergoko ikasgai honen bidez baliozkotu da:
Dantzari aplikaturiko anatomiako 1. eta 2. mailak	Anatomia aplikatua
Dantzaren historiako 1. eta 2. mailak	Musikaren eta dantzaren historia
Musikako 1., 2. eta 3. mailak	Musika-hizkuntza eta -praktika



## V. ERANSKINA BALIOZKOTZEKO ESKAERA

..... ikasleak,  
 .....-ko (DBH edo Batxilergoa) ..... mailako ikasketak egiten ari denak  
 ..... ikastetxean (ikastetxearen izena, herria eta lurraldea) eta, aldi  
 berean, .....-ko (Musika edo Dantza) ikasketa profesionalen ..... maila egiten ari denak  
 ..... zentroan (zentroaren izena, herria eta lurraldea) legezko tutore du (adin  
 txikikoa baldin bada) ..... jauna/andrea.  
 Hezkuntzako sailburuordearen 2017.eko uztailearen 3ko Jarraibideek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo  
 Batxilergoa eta Musikako edo dantza ikasketa profesionalak aldi berean egiteko aukera ematen duten neurriei eta  
 Gorputz Hezkuntza ikasgaiaren gainean goi-mailako edo errendimendu handiko kirolaria izateak eta Dantzako  
 ikasketa profesionalak izan behar dituzten eraginei buruzkoak, xedatutakoaren arabera, legezko tutoreak ondoko  
 baliozkotzeak egin daitezken eskatzen du. Horretarako, honekin batera aurkezten du ikasleak dagozkion ikasgaiak  
 gainditu dituela (edo matrikulatuta dagoela) adierazten duen ikasketa-ziurtagiria:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza			Musikako eta dantzako ikasketa profesionalak		
Maila	Baliozkotu daitezela eskatu dituen ikasgaiak	Ordu-kopurua	Maila	Ikasgai honen bidez baliozkotuko da:	Ordu-kopurua
I., 2. eta 3. mailak	Musika, ..... mailakoa		1	Instrumentu nagusia edo ahotsa, Musikakoa	
4	Musika		2	Instrumentu nagusia edo ahotsa, Musikakoa	
I., 2. eta 3. mailak	Musika, ..... mailakoa		1	Musika, Dantzako ikasketetako 1. mailakoa	
4	Musika		2	Musika, Dantzako ikasketetako 2. mailakoa	

Batxilergoa			Musikako eta dantzako ikasketa profesionalak		
Maila	Baliozkotu dadila eskatu duen ikasgaia	Ordu-kopurua	Maila	Ikasgai honen bidez baliozkotuko da:	Ordu-kopurua

Musikako eta dantzako ikasketa profesionalak			Batxilergoa		
Maila	Baliozkotu dadila eskatu duen ikasgaia	Ordu-kopurua	Maila	Ikasgai honen bidez baliozkotuko da:	Ordu-kopurua

Ikaslearen guraso naizen aldetik, jakinaren gainean nago baldin aipatutako ikasgaiak baliozkotzen badira, semea/alaba ez dela eskolatuta izango Bigarren Hezkuntzako ikastetxean edo Arte-ikasketetako zentroan, baliozkotuko diren ikasgaiak ematen diren orduetan, eta horren gaineko erantzukizuna neure gain hartzen dut.  
 Adierazten dut badudala aipatutako Jarraibideen berri eta badakidala, baldin ikasleak ez badu lortzen kalifikazio positiboa ziurtatuta aurkeztu dudana matrikulan ageri diren ikasgaietan, ez dituela gaindituko baliozkotu daitezela eskatu ditugun ikasgaiak.

(Eguna eta ikaslearen, aitaren, amaren edo tutorearen sinadura)

.....,  
 ..... ikastetxeko zuzendaria.

jauna/andrea,



## VI. ERANSKINA

### SALBUETSITA IZATEKO EDO CURRICULUMA EGOKITZEKO ESKAERA

..... ikasleak,  
 .....-ko (DBH edo Batxilergoa) ..... mailako ikasketak egiten ari denak  
 ..... ikastetxean (ikastetxearen izena, herria eta lurraldea) eta, aldi  
 berean, .....-ko (Musika edo Dantza) ikasketa profesionalen ..... maila egiten ari denak  
 ..... zentroan (zentroaren izena, herria eta lurraldea) legezko tutore du  
 (adin txikikoa baldin bada) ..... jauna/andrea.  
 Hezkuntzako sailburuordearen 2017.eko uztailaren 3ko Jarraibideek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo  
 Batxilergoa eta Musikako edo dantza ikasketa profesionalak aldi berean egiteko aukera ematen duten neurriei eta  
 Gorputz Hezkuntza ikasgaiaren gainean goi-mailako edo errendimendu handiko kirolaria izateak eta Dantzako  
 ikasketa profesionalak izan behar dituzten eraginei buruzkoak, xedatutakoaren arabera, legezko tutoreak eskaera  
 egiten du ikaslea Gorputz Hezkuntza ikasgaia egitetik salbuesteko edo ikasgai horretako curriculuma egokitze:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa			Dantzako ikasketa profesionalak edo goi-mailako edo errendimendu handiko kirolaria izatea		
Maila	Ikasgai hau egitetik SALBUESTEKO eskera egin du:	Ordu-kopurua	Maila	Ikasketa hauei esker SALBUETSIKO da:	Ordu-kopurua
	Gorputz Hezkuntza, ..... mailakoa				

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa			Musikako ikasketa profesionalak		
Maila	Ikasgai honetako CURRICULUMA EGOKITZEKO eskatu du:	Ordu-kopurua	Maila	Ikasketa hauei esker EGOKITUKO CURRICULUMA:	Ordu-kopurua
	Gorputz Hezkuntza, ..... mailakoa				

Ikaslearen guraso naizen aldetik, jakinaren gainean nago baldin aipatutako ikasgaia egitetik salbuesten bada, semea/alaba ez dela eskolatuta izango Bigarren Hezkuntzako ikastetxean, egin beharrik izango ez duen ikasgaia ematen den orduetan. Ordu horien orde, goian adierazitako Arte-ikasketetako zentroan eskolatuta izango da, eta horren gaineko erantzukizuna neure gain hartzen dut.

Adierazten dut badudala aipatutako Jarraibideen berri. Eta, badakit, salbuespenak edo curriculum-egokitzapena behin betikoa izan dadin, aurkeztu beharko dudala ikasleak ohiko ebaluazioaren eguneraino matrikula mantendu duela edo goi-mailako edo errendimendu handiko kirolaria izan dela adierazten duen ziurtagiria.

(Eguna eta ikaslearen, aitaren, amaren edo tutorearen sinadura)

.....,  
 ..... ikastetxeko zuzendaria.

jauna/andrea,



## VII. ERANSKINA

..... ikastetxeko (ikastetxearen izena, herria eta lurraldea) zuzendari den  
 ..... jaunak/andreak, Hezkuntzako sailburuordearen  
 2017.eko uztailaren 3ko Jarraibideetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa eta Musikako edo dantza  
 ikasketa profesionalak aldi berean egiteko aukera ematen duten neurriei eta Gorputz Hezkuntza ikasgaiaren gainean  
 goi-mailako edo errendimendu handiko kirolaria izateak eta Dantzako ikasketa profesionalak izan behar dituzten  
 eraginei buruzkoetan, xedatutakoarekin bat; honako honek aurkeztutako eskaera ikusita:

<b>Aitaren/amaren edo legezko tutorearen datuak</b>			
Izen-abizenak			
<b>Ikaslearen datuak</b>			
Izen-abizenak		Ikastetxea	

DBHko maila  Batxilergoko maila  Modalitatea:

Musikako ikasketa profesionala maila  Dantzako ikasketa profesionala maila  Goi-mailako edo errendimendu handiko kirolaria

bai eta honako hau adierazten duen ikasketa-ziurtagiria ere: GAINDITUTA  MATRIKULATUTA

## EBATZI DU

Lehen.- Baliozkotzea BEHIN-BEHINEAN  BEHIN BETIKO  ikasgai hau(ek):

DBHko maila  Ikasgaia(k)  Asteko ordu-kopurua

Batxilergoko maila  Ikasgaia(k)  Asteko ordu-kopurua

ikasgai honen/hauen bitartez:

Musikako ikasketa profesionala maila  Ikasgaia  Asteko ordu-kopurua

Dantzako ikasketa profesionala maila  Ikasgaia  Asteko ordu-kopurua

Bigarrena.- Baliozkotzea BEHIN-BEHINEAN  BEHIN BETIKO  ikasgai hau(ek):

Musikako ikasketa profesionala maila  Ikasgaia  Asteko ordu-kopurua

Dantzako ikasketa profesionala maila  Ikasgaia  Asteko ordu-kopurua

ikasgai honen/hauen bitartez:

Batxilergoko maila  Ikasgaia(k)  Asteko ordu-kopurua





Hirugarrena.- **SALBUESTEA**

BEHIN-  
BEHINEAN

BEHIN  
BETIKO

honako hau egitetik:

DBHko maila  Ikasgaia

Gorputz-hezkuntza

Batxilergoko maila

honako hau egiten duela  
ziurtatu duelako:

Dantzako ikasketa  
profesionalak maila

Goi-mailako edo errendimendu  
handiko kirolaria dela

Laugarrena.- **CURRICULUMA EGOKITZEA**

Ikasgai  
honetan:  
DBHko maila

Ikasgaia

Gorputz-hezkuntza

BEHIN-  
BEHINEAN

Batxilergoko maila

BEHIN  
BETIKO

honako hau eginda duela  
ziurtatu duelako:

Musikako ikasketa profesionalak maila

**Bosgarrena.-** Ebazpena behin-behinekoa bada, behin betiko egingo da berez araudi honetan eskatzen diren dokumentuak aurkezten direnean.

**Seigarrena.-** Ebazpen honen aurka errekurtsoa jar dezakete interesdunek hezkuntzako lurralde ordezkariaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren berri izan eta biharamunetik aurrera.

(Data eta sinadura)



## VIII. ERANSKINA

**MATRIKULA ALDATZEKO ESKAERA / SOLICITUD DE CAMBIO DE MATRÍCULA**

..... ikaslearen tutorea naizen honek (ikaslea adingabea izanez gero),..... ikastetxean 2017-18 ikasturtean Batxilergoan eta, aldi berean, ..... Musika edo Dantza Ikasketa Profesioaletan matrikulatuta dagoena ondoko irakasgai espezifiko hauetako matrikula aldatzea eskatzen du:

MATRIKULA EGIN DUEN IRAKASGAIA		MATRIKULA EGIN NAHI DUEN IRAKASGAIA	

Era berean, Hezkuntza Sailburuordearen jarraibideei jarraituz, Batxilergo eta Musika eta dantza Ikasketa Profesionalen bateragarritasuna errazteko neurriak ezartzen dituenak, ondoko irakasgai hauen baliozkotzea eskatzen du eta dagozkien irakasgaiak gaindituta (edo matrikula eginda) daudela frogatzen duen ziurtagiri akademikoa aurkezten dut.

BATXILERGOA		MUSIKA IKASKETA PROFESIONALAK	
Maila	Baliozkotzea eskatutako ikasgaiak	Maila	Baliozkotzeko aintzat hartzeko ikasgaiak

Aita/ama/tutorea izanik, jakin badakit baliozkotzea onartuz gero nire semeak edo alabak baliozkotutako ikasgaietara dagozkien orduetan ez duela eskolarik izango Bigarren Hezkuntzako ikastetxean, eta egoera horren ardura hartzen dut. Aitortzen dut aipatutako Dekretuaren jakitun naizela; eta jakin badakit Musika eta Dantza Ikasketa Profesioaletako ikasgai horiek gainditu ezean baliozkotzea eskatutako ikasgaiak ez direla gaindituztat hartuko.

Data, eta ikaslearen/aitaren/amaten/tutorearen sinadura

..... ikastetxe zuzendari jauna/andrea